



hamaikabat

ESTATUTOAK

LEHENENGO TITULUA

Izena, eremua, helburuak antolakuntza abiaburuak.

1 ARTIKULUA Izena

Hamaikabat, zeinaren siglak H1! diren, abertzaletasun historikoaren oinarri den euskal tradizio demokratikoaren eta herri eta nazioen arteko elkartasuna, justizia soziala eta giza eskubideen defentsa oinarri dituen, gaur egun europar kontzientziaren parte den eta abertzaletasunak berak zabaltzen lagundu duen, europar inspirazio aurrerakoiaren bateratzetik sortzen den Alderdia da.

2 ARTIKULUA Eremua, erro historikoak, helburuak, abiaburuak eta bitartekoak

Hamaikabat euskal alderdi demokratiko bat da.

Bere egikaritza eremua Euskadi edo Euskal Herriko lurralde nazionalera zabaltzen du (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa)

Egikaritza politikoa eta bere interesen defentsa eremu honetan egingo du nagusiki, lurralde bakoitzaren egoera administratibotik at, baino baita berari dagozkion gaiak aztertu eta erabakitzen diren beste edozein lurralde eremu eta instituzioetan ere.

Hamaikabatek abertzaletasun historikoaren jarraitzailetzat du bere burua, euskal lurraldeen foralitatearen jarraipen eta garapen lotura bezala, Agirre lehendakariaren errepublikar garaietatik gaurdaino, Euskal Herriaren historiaren aro berriko orririk baliotsuenak idatzi dituen mugimendu politiko honen instituzioetako esperientzi oparoa bereganatuz.

Hamaikabatek, gizarte integratu eta herrien arteko europear solidaritate esparruan oinarrituriko Euskal Herriaren burujabetza erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen du; Hamaikabatek, erreferentzi hauekin bat, helburu nagusitzat ditu batetik, Euskal Herria, euskal hiritargo nazionala, burujabe izatea, gainontzeko europear herriekin berdintasunean European Herri bezala ordezkaturia izatea nahi du eta bestetik,

pertsonen zerbitzura dagoen ideia nazionalaren barneratze eta zabalkunderik onenaren bila dabil. Herritar askeak aberri aske batetan.

Horregatik, Hamaikabat, zuzentasuna, gizarte justizia, elkartasunean eta lanaren sustapenean eta enprendizajearen oinarritzen eta abiaburua duen kudeaketaren aldekoa da, pertsonengan zentratutako kudeaketa eta gizarte egitura eta ekonomikoaren mailakako aldaketa bilatuko duena, eredu jasangarri, partehartzaile, sortzaile eta elkartasunezko baterantz iristeko.

Hamaikabatek inork gure herriari bere borondatearen aurka doan gizarte proiektu eta politikorik ez diola inposatuko adierazten du. Halaber, Aberria egiteko duen uste demokratiko sendoetan oinarriturik, H1!-ek bide demokratiko eta bakezkoak erabiliko ditu edonolako helburuak lortzeko giza izate eta duintasunaren aurka doan indarkeriaren erabilera gaitzesten du, eta baita eginiko edo ez eginiko ekintzen bidez indarkeria babestea ere.

Hamaikabaten egikaritzea politikoa egungo komunikazio eta informazio teknologiak erabiliz, zabalduz eta bultzatuz egingo da, edozein tokitatik partaidetza bultzatzeko eta baita gardentasuna ere.

3 ARTIKULUA Legezko ordezkariak.

Nazio buruzagitzako Presidenteak du Alderdiaren legezko ordezkariak.

4 ARTIKULUA Antolakuntza abiaburua

1.- Alderdiaren antolakuntza, bere organo guztietan demokrazia eta sorospen abiaburuetan oinarritutakoa izango da.

2.- Akordioak gehiengo soilez hartuko dira baldin eta Estatutoetan bestelako gehiengo berezirik finkatzen ez badu.

3.- Bozka ordezkari ezina izango da.

4.- Organo bilduetan presidenteak kalitatezko bozka izango du.

5.- Barne karguen iraupena Biltzar arrunten artekoa izango da eta Estatutoen arabera berrituko dira.

6.- Herri mailatik gorako edozein barne zein kargu publikok ezingo dute hirugarren legealdirik bete postu berdinean.

7.- Alderdiko barne organo guztietan parekidetasuna bultzatuko da gizateriari dagokionez.

8.- Ezohiko Biltzar batek karguen berrikuntza erabakiko balu, berrikuntza hau 6. Atalean ezarritako mugarik gabe egin ahal izango da.

9.- Aukeraketa baten bozka berdinak jasoz gero bi edo hautagai gehiagok emakumea aukeratuko da, bestela bigarren bozketa egingo da. Berrito gertatuko balitz zozketa bidez aukeratuko da.

10.- Hautagaitza bakarra aurkezten den kasuetan ez da bozketaren beharrik izango.

5 ARTIKULUA Euskara

Euskara, Euskal Herriko hizkuntza propioa, Hamaikabateko hizkuntza ofiziala da.

BIGARREN TITULUA

I KAPITULUA

Alderdiaren kideak

6 ARTIKULUA Kideak

Hamaikabaten kide izango dira 18 urtetik gora eta jarduteko gaitasuna izanik Alderdiko kide izan duela adierazten duen edonor.

Kide izango dira:

- 1.- Alderdikideak.
- 2.- Alderdilagunak.
- 3.- Laguntzaileak.

7 ARTIKULUA Onarpena eta uztea

1.- Alderdikidetzak edo alderdilaguntza berri baten eskaera bi alderdikide edo alderdilagunek babestu beharko dute eta egoitza edo lantokiz tokatzen den bailarako batzarrak onartu beharko du. Beste nonbaiten egin nahi izanez gero eskaria dagokion organoak aztertu beharko du.

Alderdikidetzak edo alderdilaguntza eskaria aurkeztu eta hilabete barru erantzunik ez balego onartutzat hartuko da. Une horretatik aurrera eskubide guztiakin eskabidea indarrean izango da.

Laguntzailetak eskabideen kasuan, Web edo beste era batetara eginikoa, baimena edo baiezkoa jasotakoan izango da onartua.

2.- Alderdiko edozein organotan ala adieraziz gero Alderdia utziko du alderdikide, alderdilagun edo laguntzaileak. Baita Alderdia uztearekin zigortuak izan direnak ere.

8 ARTIKULUA Eskubideak

1.- Hamaikabateko kide orok honako eskubideak izango ditu:

- a.- Izaera publikoa duen eta eskatzen duten informazioa jasotzea.
- b.- Adierazpen askatasunaren barne bere iritzia era askean azaltzea, beti ere Hamaikabateko gainontzeko kideen askatasuna eta iritzia errespetatuz.
- c.- Hamaikabateko antolatzen dituen izaera publikoko ekitaldietan parte hartzea.
- d.- Lehen aukeraketan bozka eman eta aukeratua izatea, honelako aukeraketa era aurreikusten denean.

- e.- Araubide eta adiskidetze auzietan dagokion aorganuaren aurrean aurrez entzuna izatea.
- f.- Eskumendun organoei beharrezkoa iruditzen zaien informazioa eskatzea.
- g.- Estatutoetan eta Alderdiko organoen funtzionamendurako arauetan jasotzen diren eskubideak.

2.- Hamaikabateko alderdikideek honako eskubideak izango dituzte:

- a.- Artikulu honetako lehenengo atalean adieraziak.
- b.- Barne karguak aukeratzea eta aurkeztu nahi duten barne karguetarako aukeratuak izatea.
- c.- Aukeratua izan den organoetan ahots eta bozkaz parte hartzea.
- d.- Aukeratua izan ez den organoetan parte hartzeko konbidapena eskatzea baldin eta eztabaidatuko diren gaiak berari dagokion zerbaitetaz baldin bada. Kasu hauetan ahotsez bakarrik parte hartu ahal izango du bozkarik gabe.
- e.- Indarrean diren datuak babesteko legeen mugekin Alderikide, Alderdilagun eta Laguntzaileen zerrendak begiratzea.

3.- Hamaikabateko alderdilagunek honako eskubideak izango dituzte:

- a.- Artikulu honetako lehenengo atalean adieraziak.
- b.- Barne karguak aukeratzea.
- c.- Horrela aurreikusten denean Alderdiko barne ekintzetan ahots eta bozkaz parte hartzea.

4.- Hamaikabateko laguntzaileek honako eskubideak izango dituzte:

- a.- Artikulu honetako lehenengo atalean adieraziak.
- b.- Bere partaidetza aurreikusten den barne ekintzetan parte hartzea, ahotsez eta bozkarik gabe.

9 ARTIKULUA Betebeharrak

1.- Hamaikabateko kide ororen betabeharrak honakoak izango dira:

- a.- Hamaikabat eta bere idearioari leialtasuna eta konpromezua.

- b.- Eskubide eta mugapenak kontutan hartuz Alderdiaren ekintzetan parte hartzea.
- c.- Adierazpen askatasuna kontutan izanik alderdiko gainontzeko kideen askatasuna errespetatzea.
- d.- Alderdikideen kasuan, alderdiaren sostengu ekonomikorako aldizkako ekarpena egitea.

II KAPITULUA

Kargu publikoak

10 ARTIKULUA Izaera

Hamaikabatek aurkeztu edo bultzatutako hautagaitzetan aukeratuak izan direnak edo herri edo bestelako erakunde edo herri administrazio pean dagoen enpresa batetan edozein mailatako izendapen politikoko kargurako alderdiak proposaturikoak dira Hamaikabateko kargu publikoak.

Izendapen politikoko karguak gizateriari dagokionez parekidetasunez beteko dira.

11 ARTIKULUA Kargu publikoen eskubideak

Kargu publikoen eskubideak honakoak dira:

- a.- Hamaikabatengandik bere lanari dagokion laguntza eta errespetua jasotzea.
- b.- Bere lanarekin zerikusia duten erabaki eta txostenen berri izatea.
- c.- Beren lanarekin zerikusia duten gaiak eztabaidatuko diren Alderdiko batzar edo bileretan parte hartzea ahots bidez.
- d.- Bere lana garatzeko sostengua eta laguntza teknikoa jasotzea.
- e.- Bere lana egiteagatik izan ditzazkeen arazoei aurre egiteko sostengua eta laguntza juridikoa jasotzea.
- f.- Bere lana aurrera eramaten duen erakundean Hamaikabat ordezkatzeta.

g.- Adiskidetze Batzordeari kontzientzi eragozpena eskatzea bozka aurubideari dagokionez.

12 ARTIKULUA Kargu publikoen betebeharrak

Kargu publikoen betebeharrak honakoak dira:

a.- Hamaikabat eta bere idearioarekin leialtasun eta konpromezua, lana ondo eginaz bere erakunde taldeko betebeharrekin batera eta tokatzen zaion antolakuntzaren jarraibideak beteaz.

b.- Alderdiko dagokion antolakuntzak eskatuta edo bere gogoz eskatuta aldizka edo noiz behinka bere lanaren berri ematea. Halaber, betekizunak ala eskatzen duenean herritarrei berri ematea.

c.- Bere lana edo betekizunarekin zer ikusi zuzena duten alderdiko batzar eta bileretara joatea. Baita bere beharra ikusten den bileretara deitua izaten denean ere. Bestalde, alderdiaren ekitaldi publikoetara Joan beharko du ezintasunik ezean.

d.- Estatutoen aurka jokatu eta Adiskidetze Batzordeak ala ebatsiko balu bere kargua izendatu duen edo araubidez dagokion organoaren eskura jarri beharko du.

e.- Kargu publiko diren Hamaikabateko alderdikide, alderdilagun eta baita hamaikabaten zerrendetan aurkezturiko hautagai orok, alderdiko Presidenteak izendaturiko eta Nazio Exekutibakoek aukeraturiko beraien arteko bi kidez osaturiko batzorde berezi baten aurrean, beren jabetza eta ondasun guztiak aitortu beharko dituzte. Aitormen hau kargua hartu eta uzterakoan egingo da.

f.- Euskara ez dakiten kargu publikoek agintaldiko legealdian euskara ikasteko saiakera egin beharko dute.

HIRUGARREN TITULUA

Araubide eta Adiskidetze Batzordea

13 ARTIKULUA Adiskidetze Batzordea

Adiskidetze batzordea zerrenda irekiz Biltzarrean aukeratutako lau kidez osatuko da.

Adiskidetze batzordea alderdiko erakundeen arteko liskar, alderdiko kiden arteko liskar edo alderdiko kide eta erakundeen arteko liskarretaz arituko da. Baita alderdiko estatuto eta araudien interpretazioaz ere. Arazo guzti hauetan batzordearen jokabidea, lehenasunez, adiskidetzea bilatzera zuzendua izango da eta hau ezinezkoa den kasuetan soilik aplikatuko da dagokion diziiplina araubidea. Edozein kasutan, derrigorrezkoa izango da, diziiplina araubidearekin bat datorren aurretiko adiskidetzea.

14 ARTIKULUA Diziiplina araubidea

1.- Alderdiko kideei eragotzi daitezkeen estatuto eta arauen aurkako egite eta ez egiteak dira diziiplina hutsegiteak. Hutsegiteak, oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke.

A.- Hutsegite arinak izango dira:

- a- Hauteskunde kanpainan, ala eskatuz gero, parte ez hartzea edo elkarlana ez luzatzea arrazoizko zio bat ez bada medio.
- b- Alderdikideen kasuan, alderdiko kuotak ez ordaintzea.
- c- Gutxiesteko gogoz, beste alderdikide batekin tratu desegokia izatea.

B.- Hutsegite larriak izango dira:

- a- Barne kargu eta publikoek duten betebeharra era desegokian egitea.
- b- Alderdiko beste kide bati eraso fisiko edo hitzezkoa egitea.
- c- Alderdiaren irudi edo helburuentzat kaltea eragiten duen kasuetan bozka diziiplina haustea.
- d- Urtebeteren buruan hiru hutsegite arin egitea.

C.- Hutsegite oso larriak izango dira:

- a- Beste alderdi bateko hauteskunde zerrendetan izatea.
- b- Ustelkeria.
- c- Betebehar publikoen hutsegitea herri erakundeengan ohiko jardunbidea kaltetzen duen kasuetan edo betebehar horiek ajolagabekeriz edo zabarkeriz betetzea.
- d- Urtebeteren buruan hiru hutsegite larri egitea.

e- 12.f artikulua hutsegitea.

2.- Eginiko hutsegiteen arabera jarri ahal izango diren zigorrak honakoak izango dira:

- a- Hutsegite oso larriak alderdiko kanporaketarekin zigortuko dira.
- b- Hutsegite larriak alderdiko kidetzaren bi urterarteko etetearekin zigortuko dira.
- c- Hutsegite arinak idatziz eta hitzezko oharrarekin zigortuko dira.

15 ARTIKULUA Prozedura

Diziplina prozedura honako araubidea jarraituz egingo da:

- 1.- Espedienteari. Adiskidetze batzordearen aurrean aurkeztu behar den salaketa baten bidez emango zaio hasiera.
- 2.- Adiskidetze batzordeak, bere kideen artetik, espedientearen arduraduna izendatuko du eta 15 egunen barruan salaturiko pertsonari bere aurkako espedienteari hasiera eman zaiola adieraziko zaio idatziz eta auzilariei deialdia luzatuko die hilabete baten buruan adiskidetze saiakera egiteko.
- 3.- Adiskitze saiakerak emaitz onik izango ez balu, 15 eguneko epean egoki iruditzen zaizkien alegazio eta frogak aurkezteko beta emango zaie auzilariei. Alegazio eta frogak jaso ondorengo hilabetean espedientearen arduradunak ebazpen proposamena luzatuko dio adiskidetze batzordeari eta honek 7 egunen barruan erabakia hartu beharko du.
- 4.- Adiskidetze batzordearen ebazpenaren aurka batzorde beraren aurrean errekurtsioa jarri ahal izango da.

LAUGARREN TITULUA

Antolakuntza eta ordezkaritza organoak.

16 ARTIKULUA Antolakuntza egitura

1.- Alderdiko egitura honako mailatan antolatzen da:

a.- Nazionala: Batzar Orokorra, Exekutiba nazionala, Adiskidetze Batzordea eta Kontu hartze Batzordea.

b.- Lurraldekoa: Lurralde Batzarra eta Lurralde Exekutiba.

c.- Bailarakoa: Bailarako Batzarra eta Bailarako Exekutiba. Lurralde bakoitza osatzen duten bailarak zehazteko, Lurralde Batzarrak, bere lehen bileran, lurraldea osatzen duten bailarak zehaztu beharko ditu. Zehaztapen hau aldatu ahal izango da Lurralde Batzarreko 5/3nak ala erabaki ezkerero.

2.- Alderdiaren helburuak hobeto bete ahal izateko bailara azpiko antolakuntzak sortu ahal izango dira (herrikoak, auzokoak, eta abar,...). Antolakuntza hauek eremuko alderdikide eta alderdilagunen gehiengo soilak ala erabakitzen badu sortu ahal izango dira eta 32, 33, 34, 35 eta 36 artikuluen arabera arautuko dira Batzordea eta Exekutibari dagokionez. Arautze eta antolatze askatasuna izango dute eta honako helburuak izango dituzte:

- Dagokien eremuan jarraipen politikoa egitea.
- Beren eremuan alderdiaren ordezkari izatea.
- Eremuko gainontzeko politika, gizarte eta kultura arloko taldeekin harremanak izatea.
- Inguruko beharren berri izatea eta konponbideak eskeintzea.
- Eremuko Udal talde eta kargu publikoak babestea.

I KAPITULUA

Biltzarra

17 ARTIKULUA Deialdia

1.- Ohiko Biltzarra, Batzar Orokorrak deituta, lau urtean behin egingo da eta ezohikoa honako kasuetan:

- a.- Batzar Orokorraren erabakiz.
- b.- Exekutiba nazionalaren erabakiz, kideen hirutik biren babesarekin.
- c.- Bi Lurralde Batzarrek edo gehiagoren erabakiz.

d.- Eskaera egiteko garaian alderdikide eta alderdilagunen %25aren erabakiz.

2.- Deialdia hiru hilabeteko aurrerapenez egin beharko da gutxienez ohiko Biltzarraren kasuan eta hilabeteren aurrerapenez ezohikoaren kasuan. Deialdian programa eta aztertuko diren gaien argibideak eskeiniko dira.

3.- Biltzarra antolatu eta koordinatzeko batzordea alderdiko Presidente eta Presidenteordeak, lurraldeetako Presidenteak eta Nazio eta Lurralde Exekutibako Antolakuntza eta Komunikazio arduradunek osatuko dute.

18 ARTIKULUA Osaketa eta Mahaia

1.- Biltzarra honakoak osatzen dute:

- a.- Alderdikideak.
- b.- Alderdilagunak.
- c.- Laguntzaileak.

Denek hitz egiteko eskubidea izango dute. Bozka a eta b atalekoek soilik.

2.- Biltzarreko Mahaia Presidente bat, bi presidenteorde eta bi idazkariz osatua izango da. Hauen betebeharra izango da akta jasotzea eta Biltzarra era egokian garatuko dela ziurtatzea. Mahaiaren aukeraketa zerrenda ireki bidez egingo da, biltzarkide bakoitzak pertsona bati soilik bota ahal izango dio eta mahaiaren osaketa jasoriko bozka kopuruaren arabera egingo da: Presidente, lehengo presidenteordea, bigarrenengo presidenteordea, lehenengo idazkaria eta bigarrenengo idazkaria.

19 ARTIKULUA Biltzarraren ahalmenak eta erabakiak hartzeko araubidea

1.- Biltzarrak honako ahalmenak ditu:

- a.- Alderdiko Estatutoak onartu eta aldatzea.
- b.- Alderdiaren helburuak zehaztu eta gaurkotzea.
- c.- Alderdiaren irizpide politiko eta estrategikoak onartzea.

- d.- Alderdiko Presidente eta Presidenteordea aukeratzea.
- e.- Adiskidetze Batzordeko kideak aukeratzea.
- f.- Alderdiaren desegitea onartzea.
- g.- Biltzar bat eta besteren tartean zenbait ahalmen Batzar Orokorrari ordezkari ematea. Eman ezinak izango dira a, d eta f ataletakoak.

2.-Presidente, Presidenteorde eta Adiskidetze Batzordeko kideen aukeraketa zerrenda ireki bidez egingo da. Ezin izango da kargu bakoitzerako pertsona bati baino gehiagori bozka eman.

3.- Biltzar bat eta besteren tartean Presidente, Presidenteorde eta Adiskidetze Batzordeko kideren bat ordezkatzeko aukeraketaren bat egin behar bada, aukeraketa horiek arautzen diren prozeduraren arabera Batzar Orokorrak egingo du.

4.- Biltzarreko akordioak gehiengo arruntez onartuko dira, Estatutoen onarpena ezik, honek bozka emateko eskubidea duten biltzarkideen gehiengo absolutua beharko du. Estatutoen aldaketa zazpigarren tituluan ezarritako prozeduraren arabera egingo da.

II KAPITULUA

Batzar Orokorra eta Nazio Exekutiba

20 ARTIKULUA Batzar Orokorra. Osaketa

1.- Batzar Orokorreko kideak dira:

- a.- Lurralde Batzarrak aukeraturiko 10 alderdikide eta beste bat gehiago lurraldeko 30 afiliatu bakoitzaz, lurraldeko alderdikideen artean aukeratuta.
- b.- Lurralde Batzarrak aukeraturiko 5 alderdilagun eta beste bat gehiago lurraldeko 50 alderdilagun bakoitzaz, lurraldeko alderdilagunen artean aukeratuta.
- c.- Lurralde Batzarrak aukeraturiko 2 laguntzaile eta beste bat gehiago lurraldeko 50 laguntzaile bakoitzaz, lurraldeko laguntzaileen artean aukeratuta.
- d.- Nazio Exekutibako kideak.

e.- Lurralde Exekutibako kideak.

f.- Bilarako Exekutibako koordinatzaileak.

2.- Denek izango dute hitz egiteko eskubidea. Bozka, a eta b ataletakoak soilik.

3.- Batzarreko Mahaia Presidentea, presidenteordea eta idazkari batek osatuko dute. Hauen betebeharra izango da akta jasotzea eta Biltzarra era egokian garatuko dela ziurtatzea.

21 ARTIKULUA Ahalmenak

Batzar Orokorraren ahalmenak dira:

- 1.- Biltzarreko akordioak betearaztea.
- 2.- Nazio Exekutibak proposatuta nazio mailako hauteskunde programak onartzea.
- 3.- Alderdiko politika orokorraren jarraipena egitea.
- 4.- Nazio Exekutiba edo bere kideetako baten, nazio, nazioarte edo lurralde mailatik gorako karguen lanaren berri eskatzea, onartzea edo baztertzea. Baita, bozka eskubidea duten batzarkideen 2/3 ala erabaki ezker aipaturiko karguak utzi araztea.
- 5.- Ohiko eta ezohiko Biltzarraren deialdia egitea.
- 6.- Nazio antolakuntzan ardura dutenen kargu uzte eskariaren berri izatea.
- 7.- Lehen hauteskunderen emaitzen berri izatea, lurralde mailatik gorako hauteskunderi dagokionez. Baita maila bereko erreferendumen emaitzen berri izatea.
- 8.- Nazio edo nazioarte mailako erakunde, korporazio, sozietate edo enpresa publiko eta administrazioak parte dutenetan, alderdiko ordezkari batzuen izendapena onartzea.
- 9.- Alderdiko aurrekontu eta urteko kontuak onartzea.
- 10.- Nazio eta nazioarte mailako hauteskunde aurre edo ondorengo itunak onartzea.
- 11.- Kontu Hartze Batzorderako ordezkari bat izendatzea.

22 ARTIKULUA Bilera araudia

1.- Batzar Orokorraren berritze bilera Biltzarra deitu eta 31 eta 45 egunen bitartean egingo da, Ohiko Biltzarraren kasuan, eta 15 eta 20 egunen barne Ezohikoaren kasuan. Bilera hau adineko mahai batez osaturik hasiko da, adin handieneko bat eta txikieneko beste bi pertsonak osatuta, eta Batzarreko mahaia aukeratu beharko da, presidente, presidenteorde eta idazkari batez osaturikoa. Mahaiaren aukeraketa zerrenda ireki bidez egingo da, biltzarkide bakoitzak pertsona bati soilik bota ahal izango dio eta mahaiaren osaketa jasoriko bozka kopuruaren arabera egingo da: Presidentea, presidenteordea eta idazkaria.

2.- Ohiko Batzar Orokorra urtean sei aldiz bilduko da gutxienez eta ezohikoa Nazio Exekutibak, bi Lurralde Batzar, alderdikide eta alderdilagunen %15ak edo Batzar Orokorreko bozka eskubide duten biltzarkideen heren batek eskatuta.

3.- Batzarraren deialdi eta egite egunaren artean ez dira 30 egun baino gehiago egongo eta ezta 7 baino gutxiago ere. Azkenengo kasu honetan, egin ahal izango da Batzarra baldin eta ezohiko larrialdi eta premia bada. Egoera hau Batzarrak berak onartu beharko du bilera hastean, bozka duten batzarkideen gehiengo arruntak onartuta.

4.- Kontuak Hartzeko Batzordeko ordezkariaren aukeraketa berritze Batzarrean egingo da. Horretarako, batzarraren deialdiarekin batera hautagaitzak aurkezteko epea zabaldu dela azalduko zaie batzarkideei. Epe hau batzarra egin baino 7 eta egun bat bitarterarte zabalduko da. Hautagaitzak, bozka eskubidea duten 10 batzarkideek babestu beharko dituzte gutxienez.

5.- Batzarreko akordioak hartzeko bozka eskubidea duten batzarkideen %75ak parte hartu beharko du.

Deialdiak gai zerrenda eta aztertuko diren gaien laburpen bat erantsiz bidali beharko dira.

23 ARTIKULUA Nazio Exekutiba. Betebeharrak

Nazio Exekutibaren betebeharrak dira:

- 1.- Nazio mailan alderdiaren jarduera zuzendu eta koordinatzea. Baita Biltzarra eta Batzar Orokorrean harturiko akordioak betearazteko eginbeharrak egikaritzea.
- 2.- Biltzarreko txostenak eta nazio mailako hauteskunde egitarauak zuzendu eta koordinatzea.
- 3.- Nazio eta nazioarte mailan beste gizarte eta talde politikoekin harremanak izatea.
- 4.- Lurralde mailatik gorako aurre hauteskundeetan onarturiko hautagaitzen berri ematea Batzar Orokorrari. Baita maila bereko erreferendumen emaitzen berri ematea.
- 5.- Alderdiko aurrekontua eta urteko kontuak Batzar Orokorrari proposatzea, onar ditzan.
- 6.- Nazio eta nazioarte mailako hauteskunde aurre eta ondorengo itunak onar ditzan proposatzea Batzar Orokorrari.
- 7.- Nazio edo nazioarte mailako erakunde, korporazio, sozietate edo enpresa publiko eta administrazioak parte dutenetan, alderdiko ordezkariak dutenen izendapena proposatzea Batzar Orokorrari.
- 8.- Egoki deritzon gairen baten inguruan erreferenduma deitzea, dagokion bere lurralde eremuan.

24 ARTIKULUA Osaketa eta antolakuntza.

- 1.- Nazio Exekutiba Biltzarrak zerrenda irekiz aukeraturiko Presidente eta Presidenteorde, Lurralde Exekutibako Presidente eta Presidenteorde edo azken hauek ordezkariak emanikoek osatzen dute. Presidente eta Presidenteordeak elebiduna izan beharko dute.
- 2.- Nazio Exekutibako berezko kideak dira, ahotsarekin baina bozkarik gabe, Eusko legebiltzar eta Jaurlaritzan, Nafarroako gobernu eta legebiltzarrean, Atlantiar Pirinioetako kontseilu nagusian, Aquitaniako kontseilu nagusian, Espainiako eta

Frantziako Gorteetan, EUDEL eta Nafarroako Udalerri eta kontzejuetako Federakuntzan dauden alderdiko ordezkarien artetik erakunde bakoitzetik aukeratuta bat.

3.- Nazio Exekutiba, arloka, bere kideei honako ardurak ezarriaz antolatzen da:

- a.- Antolakuntza.
- b.- Administrazioa eta Finantzak.
- c.- Komunikazioa, herritar parte hartzea eta gizarte sareen dinamizazioa.
- d.- Erakunde arloko politika.
- e.- Ikerketak, egitarauak eta prestakuntza.
- f.- Euskara, hezkuntza eta kultura.
- g.- Gizarte gaiak eta harreman sindikalak.
- h.- Gai ekonomikoak eta arloko politika.
- i.- Ingurugiro eta lurralde antolakuntza.
- j.- Nazioarteko politika.

4.- Nazio Exekutibak ala erabaki ezker, arloko arduradunaren presidentziapen behar adina arloko lantalde sortu ahal izango dira.

25 ARTIKULUA Presidentetza

Alderdiaren lege ordezkarietza Presidenteak du. Alderdiaren jardueraren ardura du, organo ezberdinak koordinatuz eta Batzar Orokor eta Nazio Exekutibako erabakiak bete araztea ahalbidetuz.

26 ARTIKULUA Presidenteordetza

1.- Presidenteordeak Batzar Orokor eta Nazio Exekutibako akordioak betearaztea ahalbidetu eta zainduko du, Presidentetzaren pean eta Nazio Exekutibako arloak koordinatuz.

2.- Kargu uzte, dimisio, heriotza, bertan ez-egote edo gaisotasuna medio, Presidentea ordezkatzan du bere betebeharratan.

III KAPITULUA

Lurralde Batzarra eta Exekutiba

27 ARTIKULUA Lurralde Batzarra. Osaketa. Mahaia

1.- Lurralde Batzarra honakoak osatzen dute:

- a.- Lurraldeko alderdikideak.
- b.- Lurraldeko alderdilagunak.
- c.- Lurraldeko alderdilagunak.
- d.- Lurraldeko Exekutibako kideak.

Denek izango dute hitz egiteko eskubidea. Bozka a eta b atalekoek soilik.

2.- Lurralde Batzarreko Mahaia presidentea, presidenteordea eta idazkari batek osatuko dute. Hauen betebeharra izango da akta jasotzea eta Biltzarra era egokian garatuko dela ziurtatzea.

28 ARTIKULUA Betebeharrak

Lurralde Batzarraren betebeharrak dira:

- 1.- Lurralde Exekutibak proposatuta lurraldeko programa onartzea.
- 2.- Lurraldeko politikaren jarraipena egitea.
- 3.- Zerrenda ireki bidez, lurraldeko presidentea eta presidenteordea aukeratzea. Kargu bakoitzerako hautagai bati baino gehiagori ezingo zaio bozkarik eman.
- 4.- Lurralde Exekutiba edo bere kidetako baten, edo lurralde mailako karguen lanaren berri eskatzea, onartzea edo baztertzea. Baita, bozka eskubidea duten batzarkideen 2/3 ala erabaki ezkererako aipaturiko karguak utzi araztea.
- 5.- Lurralde antolakuntzan ardura dutenen kargu uzte eskariaren berri izatea.

- 6.- Lehen hauteskunderen emaitzen berri izatea, lurralde mailako hauteskunderi dagokionez. Baita maila bereko erreferendumen emaitzen berri izatea.
- 7.- Lurralde mailako erakunde, korporazio, sozietate edo enpresa publiko eta administrazioak parte dutenetan, alderdiko ordezkariak dutenen izendapena onartzea.
- 8.- Lurraldeko aurrekontu eta urteko kontuak onartzea.
- 9.- Lurralde mailako hauteskunde aurre edo ondorengo itunak onartzea.
- 10.- Kontu-Hartze Batzorderako ordezkari bat izendatzea.

29 ARTIKULUA Bilera araudia

1.- Lurralde Batzarraren berritze bilera Biltzarra deitu eta 15 eta 30 egunen bitartean egingo da Ohiko Biltzarraren kasuan, eta 7 eta 15 egunen barne Ezohikoaren kasuan. Bilera hau adineko mahai batez osaturik hasiko da, adin handieneko bat eta txikieneko beste bi pertsonak osatuta, eta Batzarreko mahaia aukeratu beharko da, presidente, presidenteorde eta idazkari batez osaturikoa. Mahaiaren aukeraketa zerrenda ireki bidez egingo da, biltzarkide bakoitzak pertsona bati soilik boto ahal izango dio eta mahaiaren osaketa jasoriko bozka kopuruaren arabera egingo da: Presidentea, presidenteordea eta idazkaria.

2.- Ohiko Lurralde Batzarra urtean sei aldiz bilduko da gutxienez eta ezohikoa Lurralde Exekutibak, bi Bailara Batzar, lurraldeko alderdikide eta alderdilagunen %15ak edo Lurralde Batzarreko bozka eskubide duten biltzarkideen heren batek eskatuta.

3.- Batzarraren deialdi eta egite egunaren artean ez dira 30 egun baino gehiago egongo eta ezta 7 baino gutxiago ere. Azkenengo kasu honetan, egin ahal izango da Batzarra baldin eta ezohiko larrialdi eta premia bada. Egoera hau Batzarrak berak onartu beharko du bilera hastean, bozka duten batzarkideen gehiengo arruntak onartuta.

4.- Lurraldeko Presidente eta Presidenteordearen aukeraketa Batzarra berritzeko bileran egingo da. Horretarako, Batzarraren deialdiarekin batera hautagaitzak aurkezteko epea zabaldu dela azalduko zaie batzarkideei. Epea, berritze Batzar eguna

baino 7 eta egun bat lehenago bitartean zabalduko da. Hautagaitzak bozka eskubidea duten 10 batzarkideek babestu beharko dituzte gutxienez.

5.- Batzar Orokorrerako lurraldeko ordezkarien eta Kontuak Hartzeko Batzordeko ordezkariaren aukeraketarako prozedura berdiuna egingo da. Batzar Orokorrerako ordezkarien kasuan hautagaitzak babesik gabe aurkeztu ahal izango dira.

6.- Batzarreko akordioak hartzeko bozka eskubidea duten batzarkideen %10ak parte hartu beharko du.

Deialdiak gai zerrenda eta aztertuko diren gaien laburpen bat erantsiz bidali beharko dira.

30 ARTIKULUA Lurralde Exekutiba. Osaketa

1.- Lurralde Exekutiba, zerrenda ireki bidez Lurralde Batzarrak aukeratutako Presidente eta Presidenteorde batez eta Bailarako Koordinatzaileez osatua izango da. Presidente eta Presidenteordeak elebiduna izan beharko dute.

2.- Lurralde Exekutiba, arloka, bere kideei honako ardurak ezarriaz antolatzen da:

- Prestakuntza eta antolaketa.
- Komunikazio, hiritarren partaidetza eta sare sozialen dinamizazioa.
- Administrazioa eta Finantza.
- Erakunde Koordinazioa.
- Azpiegitura eta Garapen Ekonomiko Sektoreko Politika.
- Partaidetza eta Sozial arloa.
- Hezkuntza, Euskara eta Kultura.

3.- Lurralde exekutibako berezko kideak izango dira honako erakundeetan alderdiko ordezkari guztiek aukeratzen duten pertsona ordezkaria: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Parlamentua, Foru Aldundia, Batzar Nagusiak eta lurraldeko EUDEL edo Nafarroako Udalerrri eta kontzejuetako Federakuntza.

4.- Lurralde Exekutibak egoki deritzan batzorde sektorialak eratu daitezke, dagokion arloko arduradunak zuzenduko dituelarik.

5.- Alderdiaren lurraldeko ordezkariak Presidenteak du. Alderdiaren jardueraren ardura du, organo ezberdinak koordinatuz eta Lurralde Batzarra eta Lurralde Exekutibako erabakiak bete araztea ahalbidetuz.

6.- Presidenteordeak Lurralde Batzarreko eta Lurralde Exekutibako akordioak betearaztea ahalbidetu eta zainduko du, Presidendetzaren pean eta Lurralde Exekutibako arloak koordinatuz. Kargu uzte, dimisio, heriotza, bertan ez-egote edo gaisotasuna medio, Presidenteak ordezkatzeko du bere betebeharrak.

31 ARTIKULUA Ahalmenak

1.- Alderdiaren jardura zuzendu eta koordinatu lurralde mailan eta berak eta Lurralde Batzarrak onarturiko akordioak betetzeko beharrezko neurriak hartzea.

2.- Beste talde politiko eta sozialekin harremanak izan eremu lurraldetarrear.

3.- Izaera lurraldetarreko barrutiak dituzten hauteskundeetarako lehen hautaketetako emaitzen inguruan eta eremu lurraldetarrean deituriko erreferendumen emaitzez Lurralde Batzarra informatu.

4.- Lurralde Batzarrak onar ditzan urteko lurralde aurrekontu eta kontuak proposatu.

5.- Lurralde Batzarrak onar ditzan lurralde eremuko hauteskunde itunak edo hauteskunde ondorengo itunak proposatu.

6.- Lurralde Batzarrari lurralde eremuko organismo, erakunde, korporazio, erakundeen partaidetza duten baltzu edo enpresa publiko edo antzekoetan Alderdiaren ordezkariak duten pertsonen izendapena proposatu.

7.- Lurralde eskumenekoa den egoki deritzon edozein erabakiren inguruan erreferenduma deitu.

8.- Indarrean diren datuak babesteko legeen mugekin beste lurraldeetako Alderidikide, Alderdilagun eta Laguntzaileen zerrendak egiaztatzea.

LAUGARREN KAPITULUA

Bailarako Batzarra eta Exekutiba

32 ARTIKULUA Bailarako Batzarra

1.- Bailarako Batzarra osatzen dute:

- a.- Bailarako alderdikideak.
- b.- Bailarako alderdilagunak.
- c.- Bailarako alderdilaguntzaileak.
- d.- Bailara Exekutibako kideak.

Bailarako Biltzarra osatzen duten pertsona guztiek izango dute hitza. Bozka a eta b atalean zehazturiko pertsonak izango dute.

2.- Bailarako Batzarreko Mahaia Presidentziak, Presidenteordetza eta Idazkaritzak osatuko dute, zeinak garapen egokia bermatu eta akta jasoko duten. Mahaiaren hautaketa zerrenda irekien sistemaren bitartez gauzatuko da, batzarkide bakoitzak hautagai bati baino gehiagori bozka ezin eman diolarik eta hautagaitza honako ordenean izendatuko delarik: Presidentzia, Presidenteordetza eta Idazkaritza.

33 ARTIKULUA Ahalmenak

Bailarako Batzarrari dagokio:

- 1.- Bailarako Exekutibak proposatutako hauteskunde programak onartzea bailara eremuan.
- 2.- Alderdiaren bailara politikaren jarraipena gauzatzea.
- 3.- Zerrenda irekien bidez, Bailarako Exekutibako Koordinatzailea, Koordinatzaileordea, Idazkaritza, Administrazio eta Finantzen arduraduna eta bokalak hautatzea. Ezin bozka daskioke hautagai bati baino gehiagori.

- 4.- Bailarako Exekutiba edo bere kidetako baten edo bailara mailako karguen lanaren berri eskatzea, onartzea edo baztertzea. Baita, bozka eskubidea duten batzarkideen 2/3 ala erabaki ezker aipaturiko karguak utzi araztea.
- 5.- Bailarako Antolamenduan funtzioak gauzatzen dituztenen dimisioak jaso.
- 6.- Bailara izaeradun barrutietako hauteskundeetarako, edota beheagoko hauteskundetarako, bailara azpiko antolamendurik ez balego, lehen hautaketen inguruan eta eremu horretan deitutako erreferendumen emaitzaz informatuak izan
- 7.- Bailarako eremuko organismo, erakunde, korporazio, erakundeen partaidetza duten baltzu edo enpresa publiko edo antzekoetan Alderdiaren ordezkariak izendapena onartu.
- 8.- Bailarako Aurrekontuak eta kontuak onartu.
- 9.- Bailarako eremuan hauteskunde itunak edo hauteskunde ondorengoak onartu.
- 10.- Bailarako batzarrek ez dute erabakiko eta zehaztuko beren eskuduntzen barnean bailara azpikoek erabaki eta zehazturikoa.

34 ARTIKULUA Bilera araudia

- 1.- Bailarako Batzarra berritzeko bilera Kongresua deitu eta ondorengo 15 eta 30 egunen bitartean egingo da. Bilera hau adineko mahai batez osaturik hasiko da, adin handieneko bat eta txikieneko beste bi pertsonak osatuta, eta Batzarreko mahaia aukeratu beharko da, presidente, presidenteorde eta idazkari batez osaturikoa. Mahaiaren aukeraketa zerrenda ireki bidez egingo da, biltzarkide bakoitzak pertsona bati soilik bota ahal izango dio eta mahaiaren osaketa jasoriko bozka kopuruaren arabera egingo da: Presidente, presidenteorde eta idazkaria.
- 2.- Bailara Batzarra, izaera arruntez, urtean sei aldiz bilduko da, eta izaera ez ohikoz, Bailara Exekutibaren, bailarako alderdikide eta kide elkartuen %15aren edota ahotsdun kideen herenaren eskaeraz.
- 3.- Batzarraren deialdia eta egitearen arteko epea ez da izango 30 egun baino gehiagokoa ezta 7 egun natural baino gutxiagokoa ere, salbu ezohiko larritasun eta behar kasuan, zeina bilkuraren hasieran onartutako akordioak aitortuko duen, bertan dauden bozka eskubidea duten pertsonen gehiengo arruntaz.

4.- Bailarako Exekutibaren aukeraketa Bailarako Batzarra berritzeko bileran egingo da. Horretarako, Batzarraren deialdiarekin batera hautagaitzak aurkezteko epea zabaldu dela azalduko zaie batzarkideei. Epea, berritze Batzar eguna baino 7 eta egun bat lehenago bitartean zabalduko da. Hautagaitzak bozka eskubidea duten 5 batzarkideek babestu beharko dituzte gutxienez.

5.- Akordioen baliozkotasunerako bozka eskubidea duten batzarreko kideen %10a beharko da.

Deialdian eguneko ordena zehaztu beharko da, eta baita jorratuko diren gaien azalpena eta arrazoiak ere.

35 ARTIKULUA Bailarako Exekutiba

Bailarako Exekutibak honako osaketa izango du:

- Koordinatzailetzaa
- Koordinatzaileordetzaa
- Idazkaritza
- Administrazio eta Finantza arduraduna.
- Bailarako udalerrri kopuruaren arabera eta udalerrri guztien ordezkari bermatuz, Bailara Batzarrak egoki deritzon bokaleak.

Bailarako Exekutibaren berezko kide izango dira bailarako Udaletxetan Alkate eta bozeramaileak karguak dituzten alderdikideak.

36 ARTIKULUA Ahalmenak

1.- Alderdiaren jardura zuzendu eta koordinatu bailara mailan eta berak eta Lurralde Batzarrak onarturiko akordioak betetzeko beharrezko neurriak hartzea.

2.- Beste talde politiko eta sozialekin harremanak izatea bailara eremuan.

3.- Bailara izaerako barrutiak, edo beheragokoak bailara azpiko antolamendurik ez balego, dituzten hauteskundeetarako lehen hautaketetako emaitzen inguruan eta bailara eremuan deituriko erreferendumen emaitzez Bailara Batzarra informatzea.

4.- Bailarako Batzarrak onar ditzan urteko bailara aurrekontu eta kontuak proposatzea.

5.- Bailarako Batzarrak onar ditzan bailara eremuko hauteskunde itunak edo hauteskunde ondorengo itunak proposatzea.

6.- Bailarako Batzarrari bailara eremuko organismo, erakunde, korporazio, erakundeen partaidetza duten baltzu edo enpresa publiko edo antzekoetan Alderdiaren ordezkarietza duten pertsonen izendapena proposatzea.

7.- Bailarako eskumenekoa den eta egoki deritzon edozein erabakiren inguruan erreferenduma deitzea.

BOSGARREN TITULUA

Ekonomi eta ondare araubidea

37 ARTIKULUA Baliabide ekonomikoak

1.- Finantzaketa pribatutik eratorriak:

- a.- Alderdikideen kuotak.
- b.- Alderdiak bere ondarearen kudeaketatik eta bere xede espezifikoekin harremanetan zerbitzuen prestazioan lortutako irabaziak.
- c.- Diruzko edo espezie dohaintzak, 8/2007 Legearen ezaugarri eta baldintzen arabera eskuratuak.
- d.- Itundutako mailegu eta kredituetatik eratorritako fondoak.
- e.- Eskuratutako oinordetza edo legatuak.

2.- Finantzaketa publikotik eratorriak:

- a.- Dirulaguntza ofizialak eta alderdiaren erakundetako presentziagatiko diru-

sarrerak.

b.- Alderdien finantzaketa publikoa.

3.- Zuzenbidearen arabera beste diru-sarrerak.

38 ARTIKULUA Ondarea

Alderdiak ez du eraketa ondarerik.

39 ARTIKULUA Kontu emate prozedura. Administrazioa, fiskalizazioa eta kontrola.

Eraentza ekonomiko eta ondarezkoaren administrazioa, fiskalizazioa eta kontrola honakoaren arabera gauzatuko da:

1.- Lurralde eta Bailara Batzarrak dagokien eremuko aurrekontuak onartuko dituzte urte bakoitzaren abenduaren 15ean.

2.- Batzar Orokorrak Alderdiaren aurrekontu bateratua onartuko du, Bailara eta Lurralde Batzarrek onartutako aurrekontuak eta Batzar Orokorrak berak onartutako aurrekontua barneratuz urte bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen.

3.- Ekitaldi ekonomikoa urte naturala izango da.

4.- Eduki ekonomikodun eskubide eta obligazioak eratortzen diren egintza eta agirien eskuhartze zenbatzaile egokia bermatzeko Kontu Batzorde Zentsore bat ezarriko da, zeina Batzar Orokorraren ordezkari batek eta Lurralde Batzar bakoitzeko ordezkari batek osatuko duen, eta gainera artikulua honen bigarren atalean zehazturiko aurrekontuen inguruan informatuko du aurretiaz.

5.- Alderdiaren aurrekontu eta kontuak publikoak eta eskuraerazak izango dira Alderdiko edozein kiderentzat, Datuen Babeserako legezko mugapenen barnean.

40 ARTIKULUA Agiri Eraentza. Obligazio kontableak.

Alderdiak, Alderdikide eta Alderdilagunen Liburuaz eramateaz gain, Akta, Kontabilitate, Diruzaintza eta Inbentario eta Balantze Liburua eramango ditu, zeinaren edukia araudiak zehaztuko duen eta momentu oro finantza egoera adieraziko duen.

Liburu hauek publikoak eta eskuraerrazak izango dira Alderdiko edozein kiderentzat, Datuen Babeserako ezarritako mugapenen barnean.

SEIGARREN TITULUA

Alderdiaren desegitea

41 ARTIKULUA Desegitea

1.- Alderdiaren desegitea Kongresuak onartuko du bozka eskubidea duten alderdiko kide guztien 2/3ko gehiengoz, eta alderdikide eta alderdilagunen gehiengo osoz.

2.- Desegite uneko ondareari dagokionez, behin finantza obligazioak asetuta, euskal kultura sustatzen duten Batzar Orokorrek desegite akordioaren unean zehaztutako elkarteetara xedatuko da.

ZAZPIGARREN TITULUA

Estatutuen erreforma

42 ARTIKULUA Erreforma

Estatutu hauen aldaketa Kongresuaren eskumenekoa izango da, bozka eskubidea duten kreditaturiko biltzarkideen gehiengo osoz.

Nahiz eta aurreko paragrafoan zehaztua, Bigarren, Hirugarren, laugarren, Seigarren eta zazpigarren Tituluetan ezarritakoa aldatzeko Kongresuan bozka eskubidea duten kide guztien 3/4ko gehiengoz onartu beharko da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK ETA IRAGANKORRAK

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Urtero, aurrekontu bateratuarekin batera, Batzar Orokorrak alderdikideek ordaindu beharreko kuotaren zenbatekoa ezarriko du. Era berean, Alderdiko kargu publikoek egin beharreko ekarpenen ekarpenen zenbatekoa zehaztuko da.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Lapurdi, Nafarroa Behea y Zuberoako lurraldeek bailara bakarra osatzen dute. Bailara hau Gipuzkoako egitura lurraldetarrari elkartuko zaio. Trebiño eta Trutzioz barrutiak Araba eta Bizkaiako egitura lurraldetarrari elkartuko zaizkio, hurrenez hurren.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Diasporaren ahozko parte hartzea bermatuko da, edozein bitarteko bidez, komunikazio eta informazio teknologien bidez nagusiki, banatu daitekeen egitura bakar bat bezala.

Aurreko atalean adierazirikoaz gain, Euskal Diasporako Hamaikabateko kideen parte hartzea bermatuko da, ahotsez eta bozkaz, Estatutoak behar bezala egokituz.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehen hautaketen araudia Estatutu hauekin batera onarturik geratzen da. Bere erreforma Batzar Orokorraren eskumenekoa izango da.

LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA

Batzar Orokorra eta Lurraldeko eta Bailarako Batzarrak eratzeko ondorengo prozedura jarraituko da epeei dagokionez: Lurralde Batzarra Biltzarra bukatu eta egun bat eta 14

artean. Bailarako Batzarra Biltzarra bukatu eta 15 eta 30 egunen artean. Batzar orokorra Biltzarra bukatu eta 31 eta 45 egunen artean.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Estatutu hauek onartu ondoren 4 hilabeteko epean, Adiskidetze Batzordeak disziplina prozedura eta Batzordea beraren funtzionamendua arautzen duen araudia gauzatu eta Batzar Orokorrak onar dezan proposatuko du.

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Estatutu hauek onartu ondoren 2 hilabeteko epean, Batzar Orokorrak Alderdikide eta Alderdilagunen Liburuaren, Akta Liburuaren, Kontabilitate, Diruzaintza eta Inbentario eta Balantze Liburuaren edukia onartuko du araudi bidez.

LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Estatutu hauek onartu eta ondorengo lau hilabeteren buruan Batzar Orokorrak bateraezintasunei buruzko araudia onartuko du.

LEHEN HAUTAKETEN ARAUDIA

Erakundeetako karguetarako hauteskundeetako lehen hautaketak

1. artikulua. Objektua

Alderdiko kide guztiak hautatu dezakete eta erakunde ezberdinetarako alderdiko hautagai gisa hautatuak izan daitezke. Kapitulu honetan lehen hautaketen prozedura garatzen da.

2. artikulua. Organo arduraduna

1.- Lehen hautaketen prozeduraren organu arduraduna adiskidetze batzordea izango da, alderdiko kideen eskubideak eta ezarritako epeak zainduko dituena, eta baita prozesuaren bilakaera egokia ere.

2.- Adiskidetze batzordeak gai honen inguruko helegite, tartekatze eta interpretazioak ezagutuko ditu. Batzordearen ebazpen eta egintzak aurkatzeko 5 eguneko epea du pertsona interesdunak eta epe bera mantenduko da adiskidetze batzordeak arazoa ebazteko.

3. artikulua. Hautagaitzen aurkezpena

1.- Alderdia osatzen duen pertsona oro aurkez daiteke hauteskundeetara. Hautagaitzak bere barrutiko honako kideen kopuruaren babesaren edota hauen %10ren babesaren behar du:

- a.- Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako: 30
- b.- Nafarroako parlamentu eta foru hauteskundeetarako: 10
- c.- Udal hauteskundeetarako: 5
- d.- Europar Hauteskunde, Gorte Orokor eta Frantziar Nazio Batzarrerako: 30

2.- Hautagaitzaren aurkezpenean zein postutarako aurkezten den zehaztuko da:

A.- Hautagaitza burua.

- 1.- Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde kasuan: Lehendakaria edo Legebiltzarkidea
- 2.- Foru hauteskunde kasuan: Aldun Nagusia, Batzar Nagusien Presidentea edo Batzarkidea.
- 3.- Nafarroako Parlamentuaren kasuan: Presidente, edo parlamentaria.
- 4.- Udal Hauteskunde kasuan: Alkate, edo zinegotzia.
- 5.- Gainontzeko hauteskundeetan postua bakarria izango da.

B.- Zerrendaren gainontzekoak.

Hautagai anitz aurkezten diren kasuan, guztiak, automatikoki, salbu hautagaitzaren aurkezpenean aurkakoa adierazi, "zerrendaren gainontzeko" hautagai izatera igaroko dira.

4. artikulua. Epeak

1.- Hauteskunde eguna baino sei hilabete lehenago beratu ezaguna bada, edota adiskidetze batzordearen irizpenez hauteskunde deia igurikatu daitekeenean, 15 eguneko epea irekiko da hautagaitzen aurkezpenarako.

2.- Behin hautagaitzen aurkezpen epea itxita, eta 5 eguneko epean, adiskidetze batzordeak aurkeztutako hautagaitzak, nahiz kanpainaren egutegia eta hauteskunde data jakinaraziko dizkie Alderdiaren barrutiko kideei.

Aurkeztutako hautagaitzek ezarritako araudia bete ezin balute (adib. berdintasuna), automatikoki zerrenda egokitu egongo da behar den neurrian zerrenda aldatuz.

5. artikulua. Kanpaina

1.- Hautagaitzen aurkezpena ixten den unetik 15 eta 30 egunen tartean, adiskidetze batzordeak onartutako hautagaitza guztiak aurkeztu behar diren barrutiko Alderdiko pertsoneri aurkezpen publikoa egin ahalko diete.

2.- Xede honekin, Alderdiko kideei helarazteko egoki deritzoten informazio material guztia adiskidetze batzordearen eskura jarri beharko dute. Era berean, Alderdiko kideei hautagaitzak aurkezteko beharrezko irizten duten hitzaldi, konferentzia edota antzeko jarduerak eskatuko dizkiote adiskidetze batzordeari.

3.- Alderdiaren web orrialdean, nahiz hura dagoen sare sozialetan, hautagaitzek aurkezpen publikoa egin dezaten leku egokiak gaituko dira.

6. artikulua. Bozketa

1.- Hautagaitzaren aukeraketarako bozketa kanpainaren itxieratik hurrengo 2 eta 5 egunetan gauzatuko da.

2.- Alderdiko kide diren pertsona orok bozka dezake dagokion barrutian. Lehendakariako hautagaitzari dagokionez, EAEko hiru lurraldetako alderdiko kideek bozka dezakete. Aldun Nagusiaren edo Batzar Nagusien presidente hautagaitzari dagokionez, honen lurraldeko alderdiko kideek bozka dezakete.

3.- Bozketa isilpekoa izango da.

4.- Bailara, Lurralde edo Nazio exekutibak, bakoitzak dagokion eremuan, bozketarako beharrezko diren baliabideak izango ditu: bozka presentzialerako egokitutako aretoak eta isilpeko bozka bermatzeko baliabideak (hautestontziak, etab).

5.- Adiskidetze batzordeari dagokio bozkatzera ahalmendutako pertsonen zerrenda eta bozka paperak gauzatzea, eta posta bidezko bozka eskatu duten Alderdiaren kide guztiek beharrezko materiala jasoko dutena bermatzea. Era berean, bide telematiko eta informazio eta komunikazio teknologia (IKT) bidezko isilpeko bozka bermatzeko baliabide eta prozedurak izango dituzte.

6.- Posta bidezko bozka eta bide telematikoaren bidezko bozka egikaritu nahi dutenek, adiskidetze batzordeari idatziz eskatu beharko diote hautagaitzen aurkezpenen itxieratik 15 eta 30 eguneko tartean.

7.- Zerrenda burua hautatzeko, hautatzaile bakoitzak hautagai bakarra bozkatuko du.

8.- Zerrendako gainontzekoen hautaketari dagokionez, hautatzaile bakoitzak zerrenda bakoitzak barneratuko dituen postuen erdia edo gutxiago bozkatuko ditu gehienez.

7. Artikulua. Hautaketa

1.- Zerrenda buruaren hautapenari dagokionez, bozka kopuru gehien lortzen dituen pertsona izango da hautatua.

2.- Zerrendako gainontzekoen hautaketari dagokionez, beheranzko hurrenkeran bozka kopuru gehien lortzen dituzten pertsonak izango dira hautatuak.

3.- Pertsona hautatuak zerrendako ondorengoari utzi diezaioke bere postua, honek onartzen badu beti ere.

4.- Bozketaren ondoren zerrenda osatu ez bada, zerrenda buruak, hautagaitza guztiarekin eta dagokion barrutiko exekutibarekin, zerrenda osatuko du 15 eguneko epea baino lehen.

5.- Behin zerrenda osatzean adiskidetze batzordeari igorriko zaio.

8. artikulua. Hautagaitzen Aldarrikapena

Behin zerrendak gauzatzean adiskidetze batzordeak hautaturiko hautagaitzak aldarrikatuko ditu eta emaitzak Alderdiaren barrutiko kideei eta dagokien exekutibei bakoitzaren biltzarra informa dezaten igorriko dizkie.